

## **JOSE ANGEL ASCUNCE, GUREKIN**

2019ko azaroan izan zen Jose Angel Ascunce (Donostia, 1946-2020) parte hartu ahal izan zuen erbesteari buruzko azken kongresuan. Gerra zibila amaitu zenetik laurogei urte bete ziren urte horretan, eta jardunaldi haietan errepublikar errepresaliatuen funtsezko ekarpenetako batzuk berreskuratzen saiatu ginen. Jose Angel oso gaixo zegoen ordurako eta bakarrik jarduera batzuetara etortzen zen. Bere ohiko irribarrearekin, hitzaldiei jarraitzen zien eta, gero, goiz etxeratzen zen. Ezin zuen gehiago. Hilabete batzuk geroago, minbizia erasoan, hil zen.

Aurtengo azaroan omenaldia egingo diogu, azkenik, berandu, pandemiak ez digulako utzi duintasun minimo batekin lehenago egiten. Eta berari gustatzen zitzaion moduan gogoratuko dugu, Erbesteari buruzko XVII. Nazioarteko kongresua abian jarritz. Azaroaren 17tik 19ra bitartean, Europa eta Amerikako unibertsitateetako adituek 36ko errepublikar erbesteratuei bidean lagundu zieten mitoetako batzuk aztertuko dituzte. Gurekin izango dira, besteak beste, Manuel Aznar, Arantzazu Ametzaga, José María Naharro-Calderón edo Anastasia Shamarina mailako espezialistak. Lope de Aguirre, Federico García Lorca, Cecilia G. de Guilarte edo Pablo Nerudaren izenek, bestetik, jardunaldi hauek zipriztinduko dituzte. Antolaketan, baino, bereziki mito bat nabarmendu nahi izan dugu, Kixotearena, alegia. Cervantesen pertsonaiak erbestean izan zuen garrantziagatik egin dugu, bai, baina baita, egungo poesiarekin, soziologia garaikidearekin edo erbesteari batera, Jose Angelen ikerketa-eremu handienetako bat izan zelako ere.

Hori izango da giza zientzietako irakasle handia izan zenari gure omenaldi xumea. Badakigu, zoritxarrez, ekoizpen materialean murgilduta dagoen herrialde honetan gehiegi baloratzen ez den ikerketa eremua dela, baina hala ere Ascunceren mailako sortzaileak izan ditugu eta baita ere gogoratu behar ditugu. Dena den, Jose Angel, bere espezialista eta idazle lanaren gaitetik, irakasle handia izan zen, ikasleei ezagutzeko eta ikertzeko irrika transmititzen buru-belarri aritu zen gizona. Irakasle gutxik eramango zituzten ikerketaren esparrura orain mundu osoko unibertsitate eta eskoletan lanean ari diren hainbat eta hainbat ikasle, gizon eta emakume. Liburu eta argitalpenetan, prentsako artikuluetan ez bezala, oso zaila da herentzia hori neurtzea, baina, zalantzarik gabe, donostiar nekazekin honen ekarpen handienetako bat da.

Badakigu egun hauetan Jose Angel gurekin izango dela berriro ere. Mahai nagusitik gertu eseriko da, atentzio handirik eman gabe, beti irribarrez, hitzaldiei jarraituz, batzuetan buruaz baieztatuz, apunteren bat hartuz: ezagutzen ez zuen izen bat, ihes egin zion obra bat, laguntza eske deitzeko norbaiten izena idatziz. Jose Angel humanistak, idazleak, editoreak eta ezinezkoak ziruditen proiektuen sustatzailea izan zenak beste kongresu batean parte hartuko du. Berriro gurekin egongo da, bera ere nolabait mito bihurtua. Faltan botatzen zaitugu, Josean.

Sinatzen dute: Mónica Buxeda, Iosu Chueca, Mari Carmen Gil, Rebeca Gómez, Ana Mary Ruiz, María Luisa San Miguel eta Jose Ramon Zabala.